

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

11417 31/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, zeinaz presako neurriak hartzen baitira unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren esparruan.

I

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak mundu osoko pandemiatzat jo zuen COVID-19a. Pandemia horrek eragin handia izan du hezkuntza-sisteman: lehenik, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, alarma-egoera deklaratzeko zutenak, bertan behera utzi zituen hezkuntza-jarduera presentzial guztiak, irakaskuntzaren ziklo, gradu eta maila guztietan.

Harrezkero, Gobernua buru-belarri aritu da lanean, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioaren bidez, eta Osasun Ministerioarekin eta hezkuntzaren arloko administrazio guztiekin koordinatuta. Hasieran, hezkuntza-jarduera presentzial oro eten zenean, mobilizazio azkarra izan zen hezkuntza-materialak *linean* jartzeko, plataformak sortzeko, RTVErekin batera telebista-programa bat abian ipini eta egunean bost orduz hezkuntza-saioak emateko eta enpresek dohaintzan emandako gailuak banatzeko. Aldi berean, behar ziren aginduak argitaratu ziren lantokietako prestakuntzako lanbide-moduluaren iraupena eta baldintzak malgutzeko, bai eta Lanbide Heziketako ikasleen titulazioa baldintzatzen zuten Lanbide Heziketa dualeko proiektuenak malgutzeko ere.

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak autonomia-erkidegoekin koordinatuta jardutea bultzatu zuen, administrazio horiek hezkuntzaren arloko eskumenak dauzkaten gero, eta 21 bilera egin dira haiekin (horietako zazpi erkidego guztietako hezkuntza-arloko sailburuekin egindako konferentzia sektorialak izan dira); gainera, harremanak etengabeak dira. Gobernuak ekimena hartu zuen eta zenbait neurri proposatu zituen: ikasturteak aurrera segitzea; urrunetik ikastearen alde egitea; programazioak eta ebaluazio, promozio eta titulazioko mekanismoak irakasleen eta ikasleen egoerara moldatzea; maiatzean ikastetxeak modu partzialean irekitzea; unibertsitatean eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan sartzeko probak modu presentzialean egitea. Neurri horiek guztiak akordio lotesle bihurtu ziren onartu zituzten autonomia-erkidegoentzat. Erkidegoen hezkuntza-arloko eskumenak ez ziren ezertan aldatu.

Ekainean Gobernuak 2020-2021eko ikasturtea antolatzekeo neurriak proposatu zituen, eta autonomia-erkidegoek onartu egin zituzten. Hamalau puntuko akordio batean bildu ziren 2020ko ekainaren 11n. Halaber, hezkuntza-arloko administrazioei prebentzio- eta higiene-neurrien gida helarazi zitzaion, Osasun Ministerioarekin batera prestatua, erkidego bakoitzak bere protokoloa egin zezan. Neurri horiek Hezkuntza Ministerioaren eta Osasun Ministerioaren abuztuaren 27ko baterako konferentzian doitu eta zehaztu ziren. Horrez gainera, Gobernuak 3.000 milioi eurotik gora bideratu ditu hezkuntza sendotzeko zenbait planetara (PROA+, ReactivaFP eta Lanbide Heziketa Modernizatzeko Planera, besteak beste), COVID Funtsaren bidez, beketarako kredituak nabarmen gehituz eta digitalizazioan inbertitzeko «Educa en digital» programaren bidez.

Orain, 2020-2021eko ikasturtea hastear dagoela, herritarren kezka nagusiak dira hezkuntza eta ikastetxeetako jardun segurua, eta botere publikoek lehentasunarekin heldu behar diete, eta egoera honi zorrotz, neurritz, arduraz eta konpromisoarekin erantzun. Horretarako, aldi baterako aparteko neurri berriak prestatu behar dira.

Neurri hauek autonomia-erkidegoekin aztertu eta adostu dira 2020ko irailaren 24ko konferentzia sektorialean, hezkuntza-arloko eskumena daukaten administrazioak direnez gero. Erkidegoek adierazitako kezken arabera taxutu dira.

II

Pandemiak agerian jarri du lehendik ere jakina zen zerbait: hezkuntza-sisteman irakasleen lana funtsezkoa eta ezinbestekoa da. Irakasleen ardura, konpromisoa eta profesionaltasuna funtsezkoak izan dira hezkuntza-zerbitzu publikoari eusteko 2019-2020ko ikasturtearen amaierako eta 2020-2021eko ikasturtearen hasierako egoera zailean.

Osasun publikoa zaintzeko ezarri behar izan diren prebentzio-neurrien eta gaixotasunari eusteko neurrien ondorioz, atzeratu egin behar izan dira irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak, parte hartzeko ziren pertsonen ongizatea eta osasuna babestu beharrez ezinbestekoa baitzen birusaren hedapena erraztuko zuten jende multzo handiak eragozteko. Horregatik, 2021. urtera arte atzeratu dira unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozedurak.

2020-2021eko ikasturtea seguru hasteko eta bideratzeko ezarri diren neurrien ondorioz, ezinbestekoa da irakasle-plantillak sendotzea; kasu askotan, bitarteko funtzionarioek aritu beharko dute lanpostu horietan. Horrenbestez, behar diren lanpostuak beteko badira, beharrezkoa da aldi baterako aldatzea irakaskuntzan jarduteko titulua eskuratzeko baldintzetako batzuk; hain zuzen, graduondoko prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen duen masterra.

Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 100.2 artikuluan ezartzen duenaren arabera, bertan arautzen diren irakaskuntzetan irakasle jarduteko, beharrezkoa izango da titulazio akademiko egokia edukitzea, eta, gainera, Gobernuak irakaskuntza bakoitzerako ezartzen duen prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa jaso beharko da. Beste alde batetik, lege horren bederatzigarren xedapen gehigarrian, irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko baldintzak zehazten direla, ezartzen da aipatutako 100.2 artikuluan eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eduki behar dela honako kidego hauetan sartzeko: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa, Lanbide Heziketako irakasle teknikarien kidegoa, musikako eta arte eszenikoetako irakasleen kidegoa (arte dramatikoko espezialitateak izan ezik), arte plastikoetako eta diseinuko irakasleen kidegoa, eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoa. Hezkuntzaren Lege Organikoaren 100.2 artikulua eta bederatzigarren xedapen gehigarria oinarrikoak dira, baina ez dira lege organikoak, azken xedapenetako bosgarrenak eta zazpigarrenak zehazten dutenaren arabera.

Aurrekoa garatu nahian, 1834/2008 Errege Dekretuak prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa arautzen du (1834/2008 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta araubide bereziko irakaskuntzan irakasle jarduteko nolako prestakuntza behar den ezartzen duena eta bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoen espezialitateak ezartzen dituena). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntzen irakaskuntzan irakasle jarduteko, master-titulu bat eduki beharko da nahitaez, egiaztatzen duena jaso dela Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 94., 95. eta 97. artikuluetan eskatzen duen prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa. Horretarako, master-tituluak baldintza jakin batzuk bete behar ditu; hain zuzen ere, Ministroen Kontseiluak 2007ko abenduaren 14an hartutako erabaki batean zehazten direnak (erabaki horren bidez ezartzen da nolakoak izan behar diren Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntzen irakaskuntzan irakasle jarduteko gaitasuna ematen duten tituluak eskuratzeko ikasketaplanak), eta ECI/3858/2007 Aginduak xedatzen duenarekin bat etorri egiaztatu behar da (ECI/3858/2007 Agindua, abenduaren 27koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta hizkuntzen irakaskuntzan irakasle jarduteko gaitasuna ematen duten unibertsitate-titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituena). Irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduak, halaber, irakaskuntzarako baliokidetzat jotako titulazio bat izanik master-ikasketarik egin ezin duten pertsonen prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoaren baliokidetzat zer prestakuntza eskatzen zaien ezartzen du.

Gaur egungo egoeran, Gobernuak eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-arloko administrazioek irakaskuntzara segurtasunarekin itzultzeko eratu dituzten protokoloen arabera, nahitaez sendotu behar dira irakasle-plantillak, eta presaz, baina gerta liteke zenbait tokitan edo irakasgai, esparru edo modulu batzuetan ez gotea behar beste

hautagai egokirik, hau da, eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen masterra edo baliokidea daukaten pertsonak ez izatea aski lanpostu guztiak betetzeko.

Horregatik, aparteko neurri gisa, eta agintaritza eskudunek COVID-19aren pandemiaren ondoriozko ezohiko inguruabarrak desagertu direla erabakitzen duten ikasurtea amaitu arte bakarrik, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-arloko administrazioiek bitarteko funtzionario izendatu ahal izango dituzte graduondoko prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen masterrik (edo baliokiderik) ez daukaten pertsonak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegorako, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegorako, musika eta arte eszenikoetako irakasleen kidegorako, arte plastikoetako eta diseinuko irakasleen kidegorako eta hizkuntza eskola ofizialetako irakasleen kidegorako, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko neurriak direla-eta sortutako lanpostuak betetzeko, master hori daukan hautagairik izendatzerik ez dagoenean.

Errege lege-dekretu honen indarraldia, beraz, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko egoeraren iraupenarekin dago lotuta, honako salbuespen honekin: etaparen azken ebaluazioez araututakoa eta bitarteko irakasleak egonkortzeko deialdiez araututakoa haiek justifikatzen dituzten arau-aurreikuspenak betetzen direnean geldituko da indarrik gabe.

III

Langileez denaz bezainbatean, irakaskuntzan aldi baterako lanpostuen tasa murrizteko konpromisoa berretsi behar da, aldi baterako lanpostuak egonkortzeko planaren barruan eskaintako plazen deialdi bat eginez. Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-arloko administrazio guztiak bat etorri dira helburu horrekin Hezkuntzaren Sektoreko Konferentziaren 2020ko martxoaren 25eko bileran.

Estatuko 2017ko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legean, sektore publikoko aldi baterako lanpostuak egonkortzeko prozesuari ekin zitzaion, 2017ko martxoaren 29an Gobernuak sindikatuarekin sinatutako akordioari jarraituz. Lege horren 19.Bat artikuluan 6. apartatuan, aldi baterako lanpostuak egonkortzeko ordezte-tasa gehigarri bat aurreikusten da, aurrekontuan diruztatuta dauden eta 2016ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan gutxienez etengabe aldi baterako kontratuarekin beteta egon diren lanpostuen ehuneko 90 ere izan daitekeena. Lanpostu horiek enplegu publikoaren eskaintza batean sartu behar ziren, eta eskaintza 2017, 2018 eta 2019a amaitu aurretik onartu eta aldizkari ofizialean argitaratu behar zen; deialdi bakoitza eskaintza argitaratzen zenetik hiru urte igaro baino lehen argitaratu behar zen nahitaez.

Otsailaren 23ko 84/2018 Errege Dekretuaren bidez 276/2017 Errege Dekretua aldatu zen (276/2017 Errege Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan jasotzen diren irakaskuntzako kidegoetako espezializazio berrietan sartzea, horietara iristea eta horiek eskuratzea arautzen duen erregelamendua onartzen duena), xedapen gehigarri bat gehitzeko, hirugarrena; xedapen berri horren bidez arautzen zen nola egin behar ziren hautaketa-prozedurak 3/2017 Legeak (3/2017 Legea, ekainaren 27koa, Estatuko 2017ko Aurrekontu Orokorrena) 19.bat.6 artikuluan xedatzen duenaren itzalpean hezkuntza-arloko administrazioek onartzen zituzten eta zegokien aldizkari ofizialean argitaratzen ziren enplegu publikoaren eskaintzetan 2017. eta 2019. urteen artean.

Geroago, 6/2018 Legeak (6/2018 Legea, uztailaren 3koa, Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorrena) 19.bat.9 artikuluan bere hartan utzi zuen 3/2017 Legeak (3/2017 Legea, ekainaren 27koa, Estatuko 2017ko Aurrekontu Orokorrena) 19.bat.6 artikuluan ezartzen zuena, baina baimena eman zuen aldi baterako lanpostuak egonkortzeko tasa gehigarri bat aplikatzeko. Artikulu horrek dio 3/2017 Legearen 19.bat.6 artikuluan ezartzen denari eusten zaiola eta «horrez gainera» baimena ematen dela aldi baterako lanpostuak egonkortzeko tasa gehigarri bat aplikatzeko. Beraz, artikulu hori ez da indargabetzen, baizik eta 2017an hasitako prozesua osatzen. Hezkuntza-arloko administrazioa ez da berriaz aipatzen (beste sektore eta talde batzuk bai, ordea), baina uztailaren 3ko 6/2018 Legearen artikulu horren amaieran honako adierazpide generiko hau ageri da: «eta beste zerbitzu publiko batzuk». Bada, 2017. urtean berriaz ezartzen bazen hezkuntza-arloko

administrazioak jasoko zuela egonkortzearen onura, eta 2018ko manua haren luzapena edo eranskina bazen, argi dago hezkuntza-arloko administrazioari ere aplikatu behar zaiola, agerikoa baita zerbitzu publikoa dela, eta funtsezkoa, gainera. Hezkuntza «zerbitzu publikoa» dela 14/1970 Lege Orokorrak ere ezarri zuen (14/1970 Lege Orokorra, abuztuaren 4koa, Hezkuntzarena eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketarena). Eta txertatuta dago indarreko ordenamendu juridikoan, Konstituzioaren 27. artikuluan oinarrituta: zehazki, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan. Gainera, 2/2006 Lege Organikoak berresten du, 108.4 artikuluan (2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzarena).

Azkenik, ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak, ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituenak, 11. artikuluan zabaldu egiten ditu enplegu publikoaren eskaintza gauzatzeko eta aldi baterako lanpostuak egonkortzeko prozesuak egiteko gaiakuntzak. Alde batetik, eta aparteko neurri gisa, 2021eko ekitaldira zabalduko da Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 19.bat.9 artikuluan arautzen dituen eta hautaketa-prozesuen deialdiak argitaratuz egiten diren enplegu publikoaren eskaintza eta aldi baterako lanpostuak egonkortzeko prozesuak egiteko aldi baterako aukera, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 70.1 artikuluan ezarria, baldin eta aukera horrek 2020ko ekitaldian badu muga-eguna. Beste batetik, 2021eko abenduaren 31ra arte luzatzen da aldi baterako lanpostuak egonkortzeko prozesu horietarako enplegu publikoaren eskaintzak onartzeko eta dagokien aldizkari ofizialean argitaratzeko epealdia. Gainerako guztian, kasuan kasuko aurrekontu-legean ezartzen diren baldintzak eta betekizunak aplikatuko dira prozesu horietan.

Beraz, ezinbestekoa da ahalik azkarren ziurtatzea Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan (otsailaren 23ko 276/2017 Errege Dekretuak onartzen du) aipatzen diren irakaskuntzako kidegoetako espezializazio berrietan sartzea, horietara iristea eta horiek eskuratzea arautzen duen erregelamenduak hirugarren xedapen iragankorrean ezartzen dena honako hauetan ere aplikatzen dela: Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 19.bat artikulua 9. apartatuan xedatzen duenaren itzalpean autonomia-erkidegoetako hezkuntza-arloko administrazioek onartu eta 2021era arte dagokien aldizkari ofizialean argitaratzen diren enplegu publikoaren eskaintzetako hautaketa-prozedurak. Helburua lanpostuak egonkortzeko prozesua uniforme eta koherentea izatea da.

IV

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari dagokionez, titulu akademikoen kalitatea bermatzen duten eskakizun-maila bateratuak ziurtatu behar dira, eta, aldi berean, pandemiak eragin dituen egoera guztiei eman behar zaie erantzuna. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da egokitzapen batzuk egitea ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan aurrera egiten jarrai dezaten.

Horrenbestez, programazio didaktikoak ikasleak ikastetxetara joateaz hartzen diren erabakien ondoriozko inguruabarretara moldatu beharrez, ikaskuntza-estandar ebaluagarriak orientatiboak izango dira. Gainera, baimena ematen da Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasmaita guztietan ebaluatzeko eta promozionatzeko irizpideak aldatzeko, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, batxiler-titulua eta Lanbide Heziketako titulazioak lortzeko irizpideak aldatzeko ere.

Orobat, hizkuntzen irakaskuntzako ebaluaziorako, promoziorako eta iraupenerako irizpideak aldatzeko modua arautzen da, eta araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzako B1 eta B2 tarteko mailak eta C1 eta C2 maila aurreratuak ofizialki egiaztatzeko probei aplikatzen zaizkien oinarrizko ebaluazio-irizpide komunak pandemiaren ondoriozko ezohiko inguruabarretara egokitzeko modua ere bai.

Halaber, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapen amaierako ebaluazioak ezabatzen dira; izan ere, abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zenetik ebaluazio horiek ez dute sortzen inolako ondorio

akademikorik, eta adierazgarri modura eta diagnostikorako baino ez dira erabiltzen. Eskola-egutegia dela eta, eskola-eguntzat hartuko dira ikasleei ikastetxean bertan zein urrunetik hezkuntzako arreta eta laguntza ematen zaizkien egun guztiak.

V

Beste alde batetik, bizi garen ezohiko egoera honetan, unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuek zailtasunak izan ditzakete egiten dituzten lan-eskaintzei erantzungo dieten pertsonak aurkitzeko, hau da, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan (edo horren baliokidean) prestakuntza pedagogikoaz eta didaktikoaz ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak aurkitzeko. Bada, ikasleek hezkuntza-arreta egokia jasoko dutela ziurtatu nahian, aukera ematen da, aparteko neurri gisa, eta COVID-19aren pandemiak dirauen bitartean bakarrik, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan (edo horren baliokidean) prestakuntza pedagogikoaz eta didaktikoaz ezartzen diren baldintzak ez beste guztiak betetzen dituzten pertsonak irakaskuntzan jardun daitezen unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuetan.

VI

Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren esparruan, aparteko neurriak ezartzen dira irakaskuntza hori antolatzeko; neurri horiek Estatuko oinarrizko arautegian ezartzen denaren arabera antolatu ezin denean aplikatuko dira. Ikasleek enpresetan praktikak egitea oso garrantzitsua da, eta ez dago praktika horien lekua har dezakeen jarduerarik. Nolanahi ere, egungo egoeran, sektore eta lurralde batzuetan ezinezkoa da ikasleek praktikak egitea. Horregatik, oinarrizko arautegia aintzat hartuta, malgutasuna ezarri behar da ikasleek beren ikasketak amaitzeko prozeduran, eta aukera eman behar da praktikak ezinbesteko kasuetan soilik egin behar izateko. Beraz, baimena eman ahal izango da, salbuespenez, lantokietan egin beharreko prestakuntza-modulua murrizteko eta titulu bakoitza eta beraren gutxieneko irakaskuntza arautzen dituen errege-dekretuan ezartzen den gutxienera ekartzeko. Gainera, hezkuntza-arloko administrazio eskudunek aukera edukiko dute enpresetan egin beharreko prestakuntza-egonaldien ordezkari jarduerak batzuk proposatzeko, beste aukerarik ez dagoenean.

Neurri hori arte-irakaskuntzetan eta kirol-irakaskuntzetan ere aplikatuko da, kasuan kasuko ezaugarri berezietara moldatuta.

Enplegurako lanbide-heziketako profesionaltasun-ziurtagiriak direla-eta (34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa), horiei buruz ere aparteko neurriak ezartzen dira, 2020-2021eko ikasturtean prestakuntza praktikoaren modulua lantokietan egiteko enpresa-esparruan egiterik ez dagoenean.

VII

Konstituzioaren 86. artikuluan arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrezkoak» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua Konstituzioaren araberako tresna zilegia da, baldin eta, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro eskatu bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presazko legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea bada, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arazoengatik araudia berehala ematea eskatzen denean —esan nahi baita, ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presazko prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Beraz, ziurtatuta geratu behar da badela «ezinbesteko lotura bat zehaztutako presazko egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko neurri zehatzaren artean (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa; eta 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 4. oinarri juridikoa)». Proposatzen den erregulazioa azaldu berri den aparteko eta presazko beharriazko justifikatzen du, Konstituzioan eskatzen den bezala, eta beharriazko horrek bide ematen dio Gobernuari errege lege-dekretu hau onartzeko, Konstituzioaren 86.1 artikulua araberako Estatuaren politika zuzentzeko organoa den heinean (Konstituzio Auzitegiaren 142/2014 epaia, 3. oinarri juridikoa, eta Konstituzio Auzitegiaren 61/2018 epaia, 4. eta 7. oinarri juridikoak).

Errege lege-dekretu honek ez ditu gainditzen Konstituzioak arau-tresna hau erabiltzeko ezarritako mugak; izan ere, ez du eraginik Estatuaren oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskundeetako buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretu honen bidez erantzuna ematen zaie hezkuntza-komunitatearen nahiei eta hezkuntza-arloko administrazioetako arduradunen eskaerei, ahalik azkarren konpondu nahi baita COVID-19aren pandemiaren ondorioz irakaskuntzan eta hezkuntzan gertatu den larrialdia. Ez dago modurik araugintzako beste prozedurarik erabiltzeko, ikasturtea hasita baitago eta pandemiaren bilakaerak ez baitu denborarik uzten Gobernuaren jarduna gehiago geroratzeko, Gobernuaren eskumenekoa da-eta hezkuntzaren arloko oinarrizko arautegia ezartzea. Gainera, segurtasun juridikoa bermatuko bada eta hezkuntza-zerbitzu publikoa ondo emango bada, autonomia-erkidegoek ahalik azkarren eduki behar dute prest irakaskuntza eta hezkuntza antolatzen eta kudeatzeko aintzat hartu beharreko oinarrizko arau-esparrua.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da errege lege-dekretu honen bidez arautzea aipatu ditugun alderdiak. Izan ere, horretarako errege lege-dekretua erabiltzea bat dator Konstituzioarekin. Beraz, arau hau unibertsitaterik kanpoko hezkuntzari buruzko oinarrizko arautegian txertatuko da; hala ere, egoera normala balitz, legea edo erregelamenduzko beste xedapenen bat erabiliko litzateke. Azaldu den bezala, errege lege-dekretu hau pandemiak dirauen bitartean egongo da indarrean, eta aldatzen dituen xedapenen mailak bere hartan iraungo du horren ondoren.

VIII

Errege lege-dekretu honek bete egiten ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotzen diren erregulazio onaren printzipioak.

Hala, bete egiten da premiaren printzipioa, zeina guztiz justifikatuta geratu baita. Segurtasun juridikoaren, proportzionaltasunaren eta eraginkortasunaren printzipioak ere betetzen dira, eta nabarmentzen da neurriak ordenamendu juridikoarekin bat datoze eta haiekin aukerarik onena egiten dela salbuespenezko egoera ikusita, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar den eta ezinbestekoa den erregulazioa biltzen baitute.

Gardentasun-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretua izanik, ez da beharrezkoa aurretik kontsulta publikoa egitea, eta entzunaldi-izapidea eta informazio publikoaren izapidea ere ez dira behar. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, behar-beharrezkoak diren kargak baino ez dira ezartzen.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 18. eta 30. zenbakiek Estuari esleitzen dizkieten eskumen hauetaz baliatuz eman da: 149.1.1 puntuan, konstituzio-eskubideak baliatzeko eta konstituzio-betebeharrak betetzeko orduan espainiar guztien berdintasuna bermatzeko oinarrizko baldintzak arautzeko eskumena esleitzen zaio Estuari; 149.1.18 puntuan, funtzionario publikoaren estatutu-araubideko oinarriak arautzeko eskumena esleitzen zaio; eta, 149.1.30 puntuan, titulu akademikoak lortzeko, emateko eta homologatzeko baldintzak arautzeko eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarrizko arauak ezartzeko, gai honetan botere publikoek dauzkaten betebeharrak betetzen direla bermatze aldera.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua jasotzen duen baimena baliatuta, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ministroaren proposamenez, eta Ministro Kontseiluak 2020ko irailaren 29ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Eremua eta indarraldia.*

1. Errege lege-dekretu honen bidez onartzen diren neurriak Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 3.2 artikuluan aipatzen dituen irakaskuntzei aplikatuko zaizkie (unibertsitatekoei ez beste guztiei), bai eta lanbide-kualifikazioen sistemari lotutako enplegurako lanbide-heziketari ere.

2. Errege lege-dekretu honetan ezartzen diren neurriak, 3. eta 7. artikuluetan xedatzen dena izan ezik, agintaritzak eskudunek COVID-19aren pandemiaren ondoriozko ezohiko inguruabarrak —neurriok onartzea ekarri zuten horiek— desagertu direla erabakitzen duten ikasturtea amaitu arte egongo dira indarrean.

II. KAPITULUA

Unibertsitatez kanpoko irakasleei buruzko neurriak

2. artikulua. *Aldi baterako salbuespena: aldi batez ez da beharrezkoa izango graduondoko prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa edo baliokidea bitarteko funtzionarioak izendatzeko, aparteko neurri gisa, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko neurriak direla-eta sortutako lanpostuak betetzeko.*

1. Hezkuntza-arloko administrazio eskudunek zehaztuko dute zenbat irakasle-plaza berri behar diren beren eskumeneko ikastetxeetan COVID-19aren pandemiari erantzuteko ezarritako neurriak betetzeko eta irakaskuntzan modu egokian eta seguruan aritzeko. Beraz, plaza berri horiek modu automatikoan sortuko dira, eta haiek sortzea eragin duen beharizan larria desagertzen den ikasturtean ezabatuko dira.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren plazak betetzeko, ez beste ezertarako, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen duen graduondoko titulu ofiziala edo horren baliokidea edukitzeko betekizuna betetzen ez duten espezialitateetako hautagaiak izendatu ahal izango dituzte hezkuntza-arloko administrazioek COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortu diren bitarteko plaza horiek betetzeko, baldin eta amaitzen badira prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa egiaztatzen duen graduondoko titulu ofiziala edo horren baliokidea duten eta bitarteko lanpostuetan aritu nahi duten pertsonen eta, egonez gero, lan-eskatzailen zerrendak (titulu horiek hemen aipatzen dira: Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan eta irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduan).

Eskatzen den graduondoko prestakuntza pedagogikorik eta didaktikorik edo horren baliokiderik ez duten hautagaiak irakaskuntzan aritzeko eta lanpostu horietarako izendatzeko ezarritako gainerako baldintza guztiak bete beharko dituzte. Izendapena salbuespena izango da, eta inolaz ere ezin izango da luzatu agintaritzak eskudunek COVID-19aren pandemiaren ondoriozko aparteko inguruabarrak desagertu direla erabakitzen duten ikasturteaz gero, eta izendatutako pertsonak ezin aldatu izango dira artikulua honen 1. apartatuan ezartzen diren etara ez beste lanpostu edo plaza batzuetara.

3. COVID-19aren pandemiaren ondorioz behar diren irakasle-plazak betetzeko aparteko neurri gisa izendatu ziren bitarteko funtzionario guztien araubide juridiko eta ekonomikoa bitarteko funtzionarioei dagokiena izango da. Ematen dituzten zerbitzuak

70/1978 Legearen arabera eta funtzio publikoan sartzeko indarreko arautegian ezartzen denaren arabera aitortuko zaizkie (70/1978 Legea, abenduaren 26koa, administrazio publikoan emandako aurretiatzko zerbitzuak aitortzeari buruzkoa). Nolanahi ere, inoiz irakaskuntzako funtzio publikoan sartu nahi balute, horretan aplikatzen diren baldintza guztiak bete beharko lituzkete, eta, besteak beste, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren graduondoko titulu ofiziala edo horren baliokidea eduki beharko lukete.

3. artikulua. *Aldi baterako lanpostuak egonkortzeko hautaketa-prozedurak.*

Estatuko 2017ko Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legeak 19.bat artikulua 6. apartatua eta Estatuko 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak 19.bat artikulua 9. apartatua xedatzen duenaren itzalpean hezkuntza-erloto administrazioek 2017-2021eko aldiko ekitaldietan onartzen dituzten eta aldizkari ofizialetan argitaratzen diren lan-eskaintza publikoak gauzatzeko hautaketa-prozedurak (kontuan edukita Ekonomia suspertze aldera energiaren erloto eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuak 11. artikuluan luzatu egiten duela lan-eskaintza publikoak gauzatzeko aldia), harik eta artikulua honetan aipatzen diren lan-eskaintza publikoetako hautaketa-prozedurak amaitu arte, honako xedapen iragankor honetan ezartzen diren irizpideekin bat etorritik egin behar dira: Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakaskuntzako kidegoetako espezializazio berrietan sartzea, horietara iristea eta horiek eskuratzea arautzen dituen erregelamenduaren hirugarren xedapen iragankorra (erregelamendu hori otsailaren 23ko 276/2017 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

III. KAPITULUA

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren erloto neurriak.

4. artikulua. *Curriculumaren eta programazio didaktikoen egokitzapena.*

Ebaluatuko diren ikaskuntza-estandarrak (Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6. eta 6 bis artikuluetan aipatzen direnak) orientatiboak izango dira ikastetxeentzat, programazio didaktikoak egitea errazagoa izateko, eta programazio horiek errazago egokitzeko ikasleak ikastetxean bertan egoteari buruz hartzen diren erabakien ondoriozko inguruabarretara.

5. artikulua. *Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluatzeko eta promozionatzeko irizpideak.*

1. Hezkuntza-erloto administrazioek baimena eman dezakete Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasmaita bakoitza (eta, behar denean, baita irakasgai bakoitza ere) ebaluatzeko jarritako irizpideak aldatzeko, modu berezian baloratzeko hezkuntza-prozesuaren onerako garrantzitsuenak eta ezinbestekoak diren ikaskuntzak eta ikasleek beren kabuz ikasteko, taldean lan egiteko eta, Batxilergoaren kasuan, ikerketa-metodo egokiak aplikatzeko duten gaitasuna.

2. Hezkuntza-erloto administrazio bakoitzak arautzen duenarekin bat etorritik, ikastetxeek, salbuespenez, promozio-irizpideak aldatu ahal izango dituzte Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasmaita guztietan, eta Batxilergoko lehen ikasmaitatik bigarrenera igarotzeko irizpideak ere bai. Ikasmaita bat errepikatzea salbuespenezko neurria izango da, eta irakasle-talde osoak elkar hartuta erabaki beharko du, ikaslearen bilakaera akademikoa orokorrean aintzat hartuta. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, ikasmaita batetik beste batera ez pasatzeko arrazoi bakarra ezin da izan irakasgai batzuk gainditu gabe edukitzea.

6. artikulua. *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko tituluak eskuratzeko irizpideak.*

Ikasleek tituluak lortzeari buruzko erabakiak hartu behar direnean, irakasle-taldeak hezkuntza-arloko administrazioek araututakoari lotu beharko zaizkio, eta erabakiak denen artean hartu behar dituzte, honako hauek kontuan hartuz: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduari dagokionez, ikasleak etapa horretarako ezarri diren helburu orokorrak lortu dituenetz eta behar diren gaitasunak garatu dituenetz; Batxilergoko graduari dagokionez, ikasleak irakasgai guztietan izan duen bilakaera eta, Batxilergoko helburuez eta gaitasunez denaz bezainbatean, heldutasun akademikora iritsi denetz. Ikasleari titulu ematearen inguruko erabakia hartzean, bermatu behar da etapako helburu orokorrak lortu dituela, hau da, gauza izango dela bere ibilbide akademikoan aurrera egiteko; beraz, ez da ezinbestekoa izango irakasgai guztiak gaindituta edukitzea bi titulu hauek lortzeko. Nolanahi ere, Batxilergoko titulu eskuratzeko, ikaslearen batez besteko kalifikazioak irakasgai bakoitza gainditzeko eskatzen dena izan beharko du gutxienez.

7. artikulua. *Etapamaierako ebaluazioak ezabatzea (ebaluazio horiek Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 21. eta 29. artikuluetan arautzen dira).*

2020-2021eko ikasturtetik aurrera, eta muga-egunik ezarri gabe, honako azken ebaluazio hauek ez dira egingo:

a) Lehen Hezkuntzan, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 21. artikuluan eta 5/2016 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluan arautzen den azken ebaluazioa (5/2016 Errege Lege Dekretua, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko presako neurriena).

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 29. artikuluan eta 5/2016 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan arautzen den azken ebaluazioa (5/2016 Errege Lege Dekretua, abenduaren 9koa, Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoa ezartzeko egutegia zabaltzeko presako neurriena).

8. artikulua. *Eskola-egutegia.*

Derrigorrezko hezkuntzako eskola-egunen gutxieneko kopurua dela-eta (Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren bosgarren xedapen gehigarrian arautzen da), eskola-eguntzat joko dira osasun-larrialdiari aurre egiteko ezarri diren neurrien ondorioz ikastetxeetan gertatu den egoera ezohikoa bere onera etorri arte ikasleei modu presentzialean zein urrunetik hezkuntzako arreta eta laguntza ematen zaizkien egun guztiak.

9. artikulua. *Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloko neurriak.*

1. Hezkuntza-arloko administrazioek artikulua honetan ezartzen diren neurriak aplikatu ahal izango dituzte, beren eskumeneko esparruan, COVID-19aren pandemiak ekarri dituen ezohiko inguruabarrak direla-eta lantokietako prestakuntza egiteko behar diren enpresetara jo ezin den heziketa-zikloetan.

2. Lantokietako prestakuntzako lanbide-modulua egin behar diren salbuespen osoa edo partziala ezarri ahal izango da, baldin eta ikasleak frogatzen badu ikasketekin lotutako lan-esperientzia daukala: gutxienez sei hilabete lanaldi osoarekin.

3. Baimena eman ahal izango da, salbuespenez, lantokietan egin beharreko prestakuntza-modulua murrizteko eta titulu bakoitza eta beraren gutxieneko irakaskuntza arautzen dituen errege-dekretuan ezartzen den gutxienekora ekartzeko.

4. Baldin eta lantokiko prestakuntzaren modulua egiteko moduko enpresa nahikorik egon ez eta ondorioz langile batzuek ez badute egin modulu hori, horren ordeztan lanbideko jardura batzuk proposatu ahal izango dira; hona prozedura:

a) Ikastetxeak laneko inguruneari lotutako jardura batzuk pentsatu eta proposatu ahal izango ditu, laneko errealitateak ahalik eta gertuen daudenak.

b) Lanbide Heziketako goi-mailako zikloetan modulu integratu bat ezarri ahal izango da, honako bi modulu hauek biltzen dituenak: proiektuaren modulua eta lantokiko prestakuntzaren modulua. Modulu integratuaren iraupena berrehun eta berrogeita bost ordukoa izango da guztira, eta ikasleen kalifikazioa bi modutara egingo da: proiektuaren modulua kalifikazioa zenbaki bat izango da, eta lantokiko prestakuntzaren modulua, *gai* edo *ez gai*.

c) Oinarrizko Lanbide Heziketako curriculumetan eta erdi-mailako heziketa-zikloetan, lantokiko prestakuntzaren modulua ordeztuko jarduerak biltzen dituen proiektu-modulu bat ezarri ahal izango da; modulu horren ebaluazioa *gai* edo *ez gai* izango da.

5. Ikasleek matrikula modalitate dualetik arruntera aldatu ahal izango dute, baldin eta enpresan gertatutako aldaketan ondorioztatu prestakuntza-modalitate horretan egiten jarraitu ezin bada. Nolanahi ere, enpresaren egoerak berriz ere modalitate duallean aritzeko aukera ematen duenean, ikaslea horretara itzuli ahal izango da.

10. artikulua. *Lanbide Heziketan ebaluatze, ikasmilaz igotze eta titulua lortze irizpideak.*

Hezkuntza-arloko administrazioek honako neurri hauek aplikatu ahal izango dituzte, beren eskumeneko esparruan, Lanbide Heziketan ebaluatze, ikasmilaz igotze eta titulua emateko:

a) Baimena eman ahal izango dute lanbide-modulu bakoitza ebaluatze ezarritako irizpideak egin beharreko egokitzapen metodologikoen arabera aldatzeko.

Halaber, baimena eman ahal izango dute urruneko ikaskuntzaren modalitatean ebaluazioak egiteko ezarritakoak ez beste mekanismo batzuen bidez egiteko.

b) Aparteko neurri gisa, Lanbide Heziketako irakaskuntza guztietan ikasmilaz igotze irizpideak aldatu ahal izango dituzte.

c) Tituluak emateko irizpideak gaitasun orokorrak eskuratzeko printzipio orokorren arabera egokitu ahal izango dituzte.

11. artikulua. *Arte plastikoaren eta diseinuaren arloko lanbide-heziketari buruzko neurriak.*

1. Beren eskumeneko esparruan, hezkuntza-arloko administrazioek arte plastikoaren eta diseinuaren heziketa-zikloetan ere aplikatu ahal izango dituzte 9. artikuluko neurriak, enpresa, estudio eta tailerretako prestakuntza praktikoaren faseari dagokionez.

2. Prestakuntza praktikoa ezinezkoa denean haren ordeztuko ezarritakoa egiteko neurriak aplikatuz, kontuan edukiko dira irakaskuntza honen ezaugarri bereziak, bai maila ertaineko heziketa-zikloetan, bai goi-mailako heziketa-zikloetan, eta 9. artikuluan xedatzen denaren arabera beharrezkoak diren egokitzapenak egin ahal izango dira.

12. artikulua. *Goi-mailako arte-irakaskuntzei buruzko neurriak.*

1. Dantzako, diseinuko, arte plastikoetako eta kultura-ondasunen kontserbazio eta zaharberrikuntzako goi-mailako irakaskuntzetan, hezkuntza-arloko administrazio eskudunek erabaki ahal izango dute kanpoko praktikak ikasketak amaierako lanarekin batera edo espezialitateko derrigorrezko irakasgaien multzoko irakasgai praktikoko batekin batera egin daitezela. ECTS kredituen guztirako kopurua praktika, ikasketak amaierako lan edo irakasgai horretarako maiatzaren 14ko 632/2010, 633/2010, 634/2010 eta 635/2010 errege-dekretuetan ezartzen dena izango da; errege-dekretu horiek arautzen dituzte irakaskuntza artistikoak.

2. Gainera, beren eskumenez baliaturik, hezkuntza-arloko administrazioek aurreko apartatuan aurreikusten diren neurriak egokitu ahal izango dituzte beren lurralde-eremuan arte dramatikoko eta musikako goi-mailako irakaskuntzarako ezarri dituzten ikasketaplanetara (irakaskuntza horien oinarriko edukiak maiatzaren 14ko 630/2010 eta 631/2010 errege-dekretuetan arautzen dira).

13. artikulua. *Kirol-irakaskuntzari buruzko neurriak.*

1. Beren eskumeneko esparruan, hezkuntza-arloko administrazioek baimena eman ahal izango dute, salbuespenez, prestakuntza praktikoaren modulua murrizteko eta titulu bakoitza eta beraren gutxieneko irakaskuntza arautzen dituen errege-dekretuan ezartzen den gutxienera ekartzeko.

2. Ezinezkoa bada ikasleek prestakuntza praktikoa jasotzea kirolaren eta lanaren arloko entitate egokian, heziketa-zikloetako modulu praktikoa egiten diren kirol-ingurunekeo jarduera batzuk proposatu ahal izango dira horren ordez.

14. artikulua. *Hizkuntzen irakaskuntzari buruzko neurriak.*

1. Hezkuntza-arloko administrazioek moldatu ahal izango dituzte, beren lurralde-eremuan, hizkuntzen irakaskuntzako mailaren batean ari diren ikasle matrikuladunek kurtso batetik hurrengora pasatzeko eta maila bateko ziurtagiri ofiziala lortu gabe hurrengora pasatzeko bete beharreko baldintzak eta segitzeko ezarrita dauden irizpideak.

2. Hizkuntzen irakaskuntzako tarteko mailen eta maila aurreratuen ziurtagiriak lortzeko, ezinbestekoa izango da, betiere, 1/2019 Errege Dekretuan aipatzen den proba gainditzea (1/2029 Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, Araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzako B1 eta B2 tarteko mailak eta C1 eta C2 maila aurreratuak ofizialki egiaztatzeko probei aplikatzen zaizkien oinarriko ebaluazio-irizpide komunak ezartzen dituen).

Aurreko hori betez gero, hezkuntza-arloko administrazioek urtarrilaren 11ko 1/2019 Errege Dekretuaren 4.4 artikuluan ezartzen diren ebaluaziorako irizpideak moldatu ahal izango dituzte, baina kontuan eduki beharko dute ziurtagiria lortzeko proba gainditu beharko dela, eta horretarako beharrezkoa izango dela gutxieneko puntuazioa guztirako puntuazioaren ehuneko berrogeita hamarra izatea, batetik, eta lor daitekeen puntuazioaren ehuneko berrogeita hamarra lortzea gutxienez probako bost ataletako bakoitzean, bestetik.

3. Gainera, hezkuntza-arloko administrazioek beste neurri batzuk ezarri ahal izango dituzte ikasle ofizialek eta beren kabuz ari direnek ziurtagiriak lortzeko egin beharreko proben datak eta deialdien kopurua moldatzeko.

IV. KAPITULUA

Aparteko neurriak unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuetan irakasle aritzeko behar den prestakuntzari buruz

15. artikulua. *Aparteko neurriak ikastetxe pribatuetan irakasle aritzeko behar den prestakuntzari buruz.*

1. Irakasgai, modulu edo esparru batzuetan irakasle aritzeko ikastetxe pribatuek egiten dituzten lan-eskaintzak COVID-19aren pandemiak ekarri duen egoera dela-eta ezin badituzte hartu Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan ezartzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edo haren baliokidea duten pertsonak, aparteko neurri gisa, gainerako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonak ere jardun ahal izango dira irakasle ikastetxe horietan, pandemiak dirauen artean sortzen diren beharrei erantzuteko.

2. Agintaritzak eskudunek COVID-19aren pandemiaren ondoriozko ezohiko inguruabarrak desagertu direla erabakitzen duten ikasturtearen ondoko ikasturtetik aurrera, ikastetxe pribatuetan ari diren irakasle guztiak bete beharko dituzte unibertsitatez kanpoko

ikastetxe pribatuetan maila eta etapa bakoitzean irakaskuntzan jarduteko eskatzen diren prestakuntzaren inguruko baldintza eta betekizun guztiak.

V. KAPITULUA

Enplegurako lanbide-heziketaren arloko neurriak

16. artikulua. *Enplegurako lanbide-heziketako profesionaltasun-ziurtagiriei buruzko neurriak.*

1. Lantokiko prestakuntza praktikoaren modulua enpresa-esparruan egiterik ez badago, hezkuntza-arloko administrazio eskudunek, prestakuntzako entitateak eskaturik, baimena eman ahal izango diete profesionaltasun-ziurtagiriak ematen dituzten ikastetxeei honako neurrietako bat hartzeko, zerrendan ageri diren lehentasun-hurrenkera berean:

a) Lantokiko praktiken modulua egin ordez, lanean aritzea moduluen profesionaltasun-ziurtagiriari buruzko arautegian zehazten diren lanbideetako lanpostu batean.

b) Lantokiko prestakuntza praktikoaren modulua egiteko aldia luzatzea.

c) Praktiken modulua prestakuntza-zentroan bertan egitea.

d) Aparteko kasuetan, lantokiko praktiken modulua egin ordez, beraren arabera lan-ingurunean egin behar lirakekeen jarduerekin lotutako proiektu bat egitea.

2. Artikulu honen 1. apartatuaren a), c) edo d) letran ezartzen denarekin bat etorritik egiten den lantokiko prestakuntza praktikoaren modulua ebaluatzeko eta haren jarraipena egiteko, ez da beharrezkoa izango enpresak izendatutako tutoreak laguntzea. Ebaluazioaren emaitza *gai* edo *ez gai* kalifikazioa izango da, eta moduluen profesionaltasun-ziurtagiriaren prestakuntza ematen duen zentroak izendatu duen eta modulua ematen duen tutoreak dokumentatuko du.

Azken xedapenetako lehena. *Zenbait erregelamendu-xedapenen mailaren babesa.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri ondoren aldaketarik egin behar bada beronek aldatzen dituen erregelamenduetan, aldaketa horiek errege lege-dekretu honetan aldatzen diren arauen maila bereko arauen bidez egin ahal izango dira.

Azken xedapenetako bigarrena. *Erregelamenduz garatzea eta betearaztea.*

Gobernuari eta Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ministroari ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezartzen dena garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluen 1., 18. eta 30. puntuen babesean eman da, oinarritzko arau gisa: 1. puntuan, konstituzio-eskubideak egikaritzean eta konstituzio-eginbeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzeko oinarritzko baldintzak arautzeko eskumena esleitzen zaio Estatuari; 18. puntuan, funtzionario publikoen estatutu-araubideko oinarriak arautzeko eskumena ematen zaio (autonomia-erkidegoen antolamendu propioak dakartzan berezitasunak eragotzi gabe); 30. puntuan, titulu akademikoak eta lanbide-tituluak lortzeko, emateko eta homologatzeko baldintzak arautzeko eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ezartzeko eskumena esleitzen zaio, gai horretan botere publikoek dauzkaten betebeharrak bete daitezela bermatze aldera.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrearantz jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrearantz.

Madrilen, 2020ko irailaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN